Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko maiatzaren 22a, asteartea — 97 — Martes, a 22 de mayo de 2018

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO, LANDA INGURUNEKO ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUA

*Ekonomia Suspertzeko «Bonu teknologikoak» programaren oinarri arautzaileak eta 2018ko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2018ko maiatzaren 8an:

Gipuzkoako Foru Aldundiak diseinatutako Ekonomia Berriztatzeko Planaren helburu nagusia da, Gipuzkoak dituen testuinguruaren eta erronken aurrean, ekonomiaren susperraldia sendotzea, eta, horretarako, ezinbestekoa da gure enpresen lehiakortasuna eta nazioarteko gizarteratzea indartzea, gure zientzia, teknologia eta berrikuntza sarearen gaitasunak espezializatzea, jarduera ekonomiko berria etengabe sortzea, eta langabezia murrizten laguntzea.

Lehenengo helburu estrategikoetako bat hauxe da: «Gure enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzen laguntzea, Gipuzkoa industrial eta lehiakor bat izaten jarraitzeko», eta, horretarako, «gure konpromiso nagusia lurraldeko enpresa txikiari laguntza integrala ematea da, enpleguaren % 40 baino gehiago ordezkatzen baitu». Beraz, ahal dugun guztia egingo dugu haien beharrei modu bateratuan erantzuteko; bideragarritasuna, lehiakortasuna eta jarraitutasuna indartzeko; profesional kualifikatuak sar daitezen ekintzak sustatzeko; eta berrikuntzaren aldeko apustua egiteko, etorkizuneko eremuetan egindako inbertsioa berdinduz».

Esparru horren barruan diseinatu zen joan den urtean bonu teknologikoen programa, ETEak Fabrikazio Aurreratuan eta 4.0 Industriaren ereduan integratzen diren teknologia berrietara hurbiltzeko. Orain, lurraldeko Eskualde Garapenerako Agentziekin izandako lankidetzari esker, bonuen aurreko diseinuarekin behar bezala bete ez ziren premia batzuk antzeman dira, eta, ondorioz, bidezkotzat jo da bonuak berriro diseinatzea ekitaldi honetarako.

Diru laguntza hauek 2017-2019 Diru Laguntzen Plan Estrategikoan sartuta daude.

Horiek horrela, Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta gaiaz hitz egin ondoren, Diputatuen Kontseiluak.

ERABAKI DU

*Lehenengo.* Onartzea Ekonomia Suspertzeko «Bonu teknologikoak» programako diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak. Erabaki honekin batera doaz I. eranskinean.

*Bigarren.* Onartzea diru laguntzen 2018ko deialdia, erabaki honen II. eranskinean jasota dagoena.

*Hirugarren.* Baimentzea 450.000,00 euroko gastua, deialdi hau gauzatzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretako kontu sail hauen kargura:

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, MEDIO RURAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

*Bases reguladoras y convocatoria 2018 del programa para la Reactivación Económica «Bonos tecnológicos».*

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 8 de mayo de 2018:

El Plan de Reactivación Económica diseñado por la Diputación Foral de Gipuzkoa tiene como objetivo central, ante el contexto y los retos que encara Gipuzkoa, el de apuntalar la recuperación económica, fortaleciendo la competitividad e inserción internacional de nuestras empresas, especializando las capacidades de nuestra red de ciencia-tecnología-innovación, favoreciendo la creación continua de nueva actividad económica y reduciendo el desempleo.

El primero de sus objetivos estratégicos es el de «apoyar el fortalecimiento competitivo de nuestro tejido empresarial para seguir contando con una Gipuzkoa industrial y competitiva», para ello se establece que «nuestro compromiso se centra en el apoyo integral de la pequeña empresa del territorio, que representa más del 40 % del empleo. Centraremos nuestros esfuerzos en atender sus necesidades de forma unificada, reforzar su viabilidad, competitividad y continuidad, facilitar la incorporación de profesionales cualificados y apostar con ellas por la innovación, igualando la inversión que realicen en ámbitos de futuro».

Es en este marco en el que se diseñaron el pasado año un programa de bonos tecnológicos destinados a acercar a las pyme a las nuevas tecnologías que se integran en la Fabricación Avanzada y en el modelo de Industria 4.0. En la actualidad y fruto de la colaboración con las agencias de desarrollo del territorio se han detectado una serie de necesidades insuficientemente cubiertas con el anterior diseño de los bonos, lo que ha motivado su rediseño parcial para este ejercicio.

Estas subvenciones se encuentran incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2017-2019 (PES).

Por todo ello, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral.

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras para la concesión de las subvenciones del programa para la Reactivación Económica «Bonos tecnológicos», que se adjuntan como anexo I al presente acuerdo.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2018 de las citadas subvenciones, que se acompaña como anexo II al presente acuerdo.

*Tercero.* Autorizar un gasto por importe de 450.000,00 euros para hacer frente a esta convocatoria con cargo a las siguientes partidas de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

EK\CV GAO-I-2018-03384

— 1.0420.220.470.00.02.2018: 300.000,00 €.

— 5.0420.220.470.00.02.2019: 150.000,00 €.

Baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, aurkeztutako eskaerak ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da diru laguntzak ematea ebatzi aurretik kredituaren erabilgarritasuna deklaratzea.

*Laugarren.* Erabaki honen bidez onartzen diren oinarri arautzaileek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunean sortuko dituzte ondorioak.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek, zuzenean, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hala ere, interesdunek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete.

Donostia, 2018ko maiatzaren 11.—Alfonso Acarreta Rodríguez, Departamentuko idazkari teknikoa. (3384)

I. ERANSKINA

*Ekonomia Suspertzeko «Bonu teknologikoak» programaren oinarri arautzaileak.*

*1. oinarria. Diru laguntzaren xedea.*

Oinarri hauetan aipatzen diren diru laguntzen helburua da berrikuntza sustatzea Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainetan, 4.0 Fabrikazio Aurreratuko eta Industriako eredua txertatu dezaten edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz ekimenean zehaztutako apustu estrategikoak gauzatu dezaten eta beren posizionamendu teknologikoa hobetu dezaten, «bonu teknologikoak» emanez.

Bonuen helburua da Gipuzkoako enpresak eta sare ekonomikoaren lehiakortasuna hobetu dezaketen teknologien arloko zerbitzuak eskaintzen dituzten entitateak hurbiltzea; horretarako, bonuak diruz lagunduko du enpresek eskatzen dituzten teknologia zerbitzuen kostuaren zati bat, Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainen negozio eta kudeaketa prozesuetan berrikuntzak azkar txertatzeko.

Dagokion deialdiak aukeratu ahalko ditu bonuak aplikatzeko teknologiak, baita «bonu teknologikoa» aplikatzeko zerbitzua ematen duten entitateen izaera ere.

*2. oinarria. Entitate onuradunak.*

2.1. Laguntzen onuradun izango dira Gipuzkoan zerga-egoitza edo establezimendu iraunkorra daukaten enpresa txiki eta ertainak.

2.2. Oinarri hauen ondorioetarako, enpresaren kategoria zehazteko, kontuan hartuko dira Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduren 2. artikulua eta I. eranskina –edo Erregelamendu hori ordeztu edo aldatuko duten xedapenak–. 651/2014 Erregelamenduak laguntza kategoria batzuk merkatu batuarekin bateragarriak direla deklaratzen du, Itunaren (DOUE L 187 del 26-06-2014) 107 eta 108. artikuluak aplikatuta.

— 1.0420.220.470.00.02.2018: 300.000,00 €.

— 5.0420.220.470.00.02.2019: 150.000,00 €.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

*Cuarto.* Las bases reguladoras aprobadas por el presente acuerdo producirán efectos a partir del día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 11 de mayo de 2018.—El secretario técnico del Departamento, Alfonso Acarreta Rodríguez. (3384)

ANEXO I

*Bases reguladoras del programa para la Reactivación Económica «Bonos tecnológicos».*

*Base 1.ª Objeto de la subvención.*

Las subvenciones a las que se refieren las presentes bases tienen por objeto regular la concesión de «bonos tecnológicos» para la ejecución de proyectos que fomenten la innovación en las pymes guipuzcoanas mediante la incorporación del modelo de Fabricación Avanzada y de Industria 4.0 o se correspondan con alguna de las restantes apuestas estratégicas definidas por la Diputación Foral de Gipuzkoa en el marco de Etorkizuna Eraikiz y mejoren su posicionamiento tecnológico.

Para ello se concederá ayudas de importe limitado, denominadas «bonos tecnológicos» a través de las cuales las pyme podrán contratar servicios de carácter tecnológico susceptibles de mejorar la competitividad de las mismas; para ello el bono subvencionará parte del importe del coste de los servicios tecnológicos requeridos por las empresas, para acelerar la introducción de innovaciones en los procesos de negocio y de gestión de las pymes guipuzcoanas.

La convocatoria correspondiente podrá seleccionar las tecnologías para las cuales será de aplicación los bonos, así como la tipología de las entidades prestadoras de los servicios a los que aplicar el «bono tecnológico».

*Base 2.ª Entidades beneficiarias.*

2.1. Tendrán la consideración de beneficiarias aquellas pequeñas y medianas empresas con domicilio fiscal o establecimiento permanente en Gipuzkoa.

2.2. A efectos de las presentes bases reguladoras, para determinar la categoría de empresa (tamaño), se tendrá en cuenta lo dispuesto en el artículo 2 y en el anexo I del Reglamento (UE) n.º 651/2014 de la Comisión, de 17 de junio de 2014, por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado (DOUE L 187 del 26.6.2014); o en las disposiciones que lo sustituyan o modifiquen.

EK\CV GAO-I-2018-03384

2.3. Oinarri hauetan arautzen diren diru laguntzen onuradun izan daitezke aurreko apartatuan aipatzen diren entitateak, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

— Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan ezarritako debekuen eraginpean ez egotea.

— Zigor administratiborik edo penalik ez izatea sexu diskriminazioa dela eta, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 legeak aurreikusitakoaren arabera.

Baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko, eskatzaileak erantzukizunpeko aitorpen bat aurkeztuko du.

— Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egotea.

Hori egiaztatzeko, organo eskudunak igorritako ziurtagiri administratibo positiboa aurkeztuko du eskatzaileak. Agiri horren ordez, organo kudeatzaileari administrazio eskudunei datu horiek zuzenean eskatzeko baimen idatzia eman ahal izango zaio.

*3. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.*

Bonuak aplikatuko dira zentroek eman behar dituzten proba edo zerbitzu teknologikoei lotutako gastuetan, eta deialdi bakoitzean zehazten den teknologietan, betiere zientzia, teknologia edo berrikuntza ezagutzaren transferentzia dakarten teknologien inguruan.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira entitate eskatzaileak aurkezten duen jardueraren aurrekontu xehatu eta zehatzean jasota dauden eta zalantzarik gabe horren garapenarekin lotuta dauden gastuak.

*4. oinarria. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

4.1. Eskaerak eta erantsitako dokumentazioa bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztu behar dira, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez (https://egoitza.gipuzkoa.eus), diru laguntzen atarian sartuz eta horretarako eskuragarri dagoen eskabidea betez. Eskaera orria, eta hari erantsitako dokumentazioa aurkezterako orduan kontuan hartuko da, 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua, foru administrazioaren esparruan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duena eta 2006ko irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretua, foru administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzea arautzen duena.

4.2. Zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabilita entitate eskatzailearen ordezkaria dela egiaztatzen duen pertsonak sinatu behar du diru laguntza eskaera, edo, lankidetza proiektuen kasuan, proiektuko liderra den erakundeko ordezkaritza egiaztatzen duenak.

4.3. Deialdiari buruzko informazioa Gipuzkoako Foru Aldundiko «diru laguntzen atarian» eskura egongo da: www.gipuzkoa.eus/dirulaguntzak.

4.4. Eskaerak aurkezteko epea deialdian zehaztuko da.

4.5. Eskaera egin duten erakundeak ez daude beharturik Gipuzkoako Foru Aldundiari aurrez eman diren dokumentuak aurkeztera. Ondorio horietarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluak zehazten duenari jarraituz. Kasu hauetan, eskaera orrian zehaztu beharko du noiz eta zer organo edo dependentziatan aurkeztu edo igorri ziren aipatutako dokumentuak. Dokumentazioa lortzea ezinezkoa den kasuetan, organo eskumena duen organoak eskatu ahal izango dio eskaera egin duen erakundeari, edo aurkez dezala, edo, ezin badu, beste nolabait egiazta ditzala dokumentuan egiaztatu beharreko eskakizunak.

2.3. Podrán acogerse a las subvenciones reguladas en estas bases las entidades a que se refiere el apartado anterior, siempre que reúnan los siguientes requisitos:

— No estar afectadas por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— No haber sido sancionadas, administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, según lo previsto en la ley 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

La acreditación de estos requisitos se efectuará mediante la presentación de una declaración responsable.

— Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social.

Para su acreditación presentará una certificación administrativa positiva expedida por el órgano competente. Dicha documentación podrá sustituirse por la autorización expresa al órgano gestor para que recabe directamente los referidos datos de las administraciones competentes para emitirlos.

*Base 3.ª Gastos subvencionables.*

Los bonos se aplicarán sobre los gastos asociados a las pruebas o servicios tecnológicos a prestar por las entidades prestadoras y tecnologías que puedan definirse en cada convocatoria, y que supongan transferencia de conocimiento científico, tecnológico o de innovación.

Se considerarán gastos subvencionables aquellos gastos que figurando recogidos en el presupuesto desglosado y detallado de la actividad que presente la entidad solicitante estén vinculados de manera indubitada al desarrollo de la misma.

*Base 4.ª Forma y plazo de presentación de solicitudes.*

4.1. Las solicitudes, junto con el resto de documentación, deberán presentarse, vía Internet, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), accediendo al portal de subvenciones y cumplimentando el formulario específico disponible a estos efectos. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral y el Decreto Foral 40/2006, de 12 de septiembre, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral.

4.2. La solicitud se suscribirá por la persona que acredite la representación de la entidad interesada por cualquier medio válido en derecho o en el caso de proyectos en colaboración, por parte de quien acredite la representación de la entidad líder del proyecto.

4.3. La información de la convocatoria estará disponible en el «Portal de subvenciones» de la Diputación Foral de Gipuzkoa www.gipuzkoa.eus/subvenciones.

4.4. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria.

4.5. Las entidades solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que hayan sido aportados anteriormente a la Diputación Foral de Gipuzkoa. A estos efectos, el interesado deberá indicar en qué momento y ante qué órgano administrativo presentó los citados documentos de conformidad con lo previsto en el artículo 28.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre. En estos casos, deberán indicar en el impreso de solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos dichos documentos. En los supuestos de imposibilidad material de obtener la documentación, el órgano competente podrá requerir a la entidad solicitante su presentación o, en su defecto, la acreditación por otros medios de los requisitos a que se refiere el documento.

EK\CV GAO-I-2018-03384

4.6. Eskaera orriak, edo harekin batera aurkeztutako agiriek, identifikazio daturik jasoko ez balute, akatsen bat izango balute edo daturen bat faltako balute, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, hamar eguneko epea emango litzaioke eskatzaileari hutsegite horiek konpontzeko, eta ohartaraziko litzaioke, horrela egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, aipatutako Legeak 21.1 artikuluan aurreikusitako eran.

*5. oinarria. Laguntzak emateko prozedura.*

Programa enpresa txiki eta ertainei dago zuzendua eta zenbateko mugatuko proiektuak laguntzean datza. Horrek suposatzen du urtean zehar sortzen diren proiektuak direla, enpresen tamaina eta proiektu motagatik planifikatzen ez direnak, elkarrekiko norgehiagoka bidezko deialdi bat garatzea zailtzen duelarik.

Horregatik, eskaerak ebazterakoan, kontuan hartuko da eskaeren jasotze hurrenkera, eta horren arabera banatuko dira funtsak, eta deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte, 7. oinarrian zehaztutako mugak eta zenbatekoak gainditu gabe.

*6. oinarria. Finantzaketa.*

Emango diren diru laguntzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdian zehaztuko da zein aurrekontu kredituren kargura finantzatuko diren subentzioak.

*7. oinarria. Diru laguntzen portzentajeak eta gehieneko zenbatekoak.*

7.1. Diru laguntzaren zenbatekoa kostu hautagarrien % 70 ekoa izango da enpresa txikia bada eta % 60 enpresa ertaina bada, 8.000,00 euro gainditu gabe.

Bonua Eskualde Garapenerako Agentzia batekin adostutako hobekuntza gomendio baten ondorioa denean, eta aplikazioa agentziaren ardurapean badago, portzentajea % 10 handituko da.

Deialdiak zehaztu ahal izango ditu lehentasuna duten teknologiak eta jarduera eremuak, eta kasu horiei % 10 aplikatuko zaie diru laguntza gehigarri gisa.

7.2. Erakunde eskatzaileak aurkeztutako aurrekontu xehatua (edo ondoren egindako aldaketak) diru laguntza kopurua zehazteko eredutzat erabiliko da. Diru laguntza hori jarduera kostuaren portzentaje bat izango da eta diru laguntzaren kopurua guztira ezingo da izan hasieran emandakoa baino handiagoa.

7.3. Gehienez, bi proiektu subentzionatuko dira enpresa bakoitzeko, teknologia desberdinak erabiltzen badira.

*8. oinarria. Prozedura izapidetzeko eta antolatzeko eskumena duen organoa.*

Prozedura izapidetuko duen organoa Informazio eta Komunikazio Teknologia Berrien Sustapen Zerbitzua izango da, aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatuko dituena.

*9. oinarria. Ebazpena.*

9.1. Laguntzak eman edo, hala dagokionean, ukatzeko erabakia Berrikuntzako zuzendariak hartuko du kontuan hartuta departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruz indarrean dagoen foru dekretuan zehaztutakoa.

9.2. Laguntzak eman edo, hala dagokionean, ukatzeko erabakia eskatzaile bakoitzari indibidualki jakinaraziko zaio. Hala eta guztiz ere, organo emaileak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu emandako diru laguntzak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 17 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

4.6. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 21.1 de la citada ley.

*Base 5.ª Procedimiento de concesión.*

El programa va dirigido a las pyme y consiste en el apoyo a proyectos de importe limitado, lo que implica que se trata de proyectos que se van concibiendo a lo largo del año, sin que, por el tamaño de empresa y tipo de proyecto, se planifiquen, lo que dificulta el desarrollo de una convocatoria por concurrencia competitiva.

Por ello, las solicitudes serán resueltas distribuyéndose los fondos en el orden en que se reciban las solicitudes, siempre que cumplan todos los requisitos establecidos en la convocatoria y sin superar los límites e importes señalados en la base 7.ª

*Base 6.ª Financiación.*

Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

*Base 7.ª Porcentajes y cuantía máxima de las subvenciones.*

7.1. La ayuda será del 70 % del coste elegible en el caso de pequeña empresa y del 60 %, en el caso de mediana empresa, sin que pueda ser superior a 8.000,00 euros.

En el caso de que el bono sea consecuencia de una recomendación de mejora consensuada con una Agencia de Desarrollo Comarcal y sea tutelada su aplicación por la misma, el porcentaje será un 10 % superior.

La convocatoria podrá determinar aquellas tecnologías y ámbitos de actividad a considerar como preferentes y a las cuales se les aplicará hasta un 10 % de subvención adicional.

7.2. El presupuesto desglosado presentado por la entidad solicitante, o sus modificaciones posteriores, servirán de referencia para la determinación final del importe de la subvención, calculándose ésta como un porcentaje del coste subvencionable final de la actividad, sin que el importe final de la subvención pueda superar el porcentaje determinado en la concesión.

7.3. Se subvencionará un máximo de dos proyectos por empresa, que deberán implicar tecnologías diferentes.

*Base 8.ª Órgano competente para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

El órgano instructor del procedimiento será el Servicio de Promoción de Nuevas Tecnologías de la Información y Comunicación quien analizará y evaluará las solicitudes presentadas.

*Base 9.ª Resolución de la concesión.*

9.1. La resolución sobre la concesión o, en su caso, denegación de las ayudas corresponderá al director de Innovación, de conformidad con lo señalado en el decreto foral vigente de estructura orgánica y funcional del departamento.

9.2. La resolución de concesión o, en su caso denegación, se notificará individualmente a cada solicitante. No obstante, el órgano concedente publicará en el Boletin Oficial de Gipuzkoa las subvenciones concedidas según lo establecido en el artículo 17 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2018-03384

9.3. Onuradunak 10 eguneko epea izango du, jakinarazpenaren datatik aurrera, diru laguntza onartzeko. Kontrakoa berariaz jakinarazten ez bada, tazituki onartutzat joko da. Diru laguntzari ondoren uko egitea, aldez aurretik eta garbi justifikatu gabe, ez-betetzetzat ulertuko da eta, beraz, zigorra ekar dezake.

*10. oinarria. Onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.*

10.1. Erakunde onuradunek diru laguntza onartzeak berekin dakar honako hauetan ezartzen diren betekizunen pean egotea: oinarri hauek; 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru Laguntzei buruzkoa; eta hura garatzeko araudia, 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartua.

10.2. Programa taldearen behar eta ezaugarrietara ongi moldatzen dela ziurtatzeko, erakunde onuradunak behartuta egongo dira programaren ebaluazioan lankide izatera; horretarako, Informazio eta Komunikazio Teknologia Berrien Sustapen Zerbitzuak egindako galdetegia bete beharko dute.

10.3. Diruz lagungarri izateak berekin dakar erakundeek Departamentuari proiektuari buruzko informazioa ematea eta baimena ematea komunikaziorako erabil dezaten, betiere baliabide publikoen erabileraren gardentasuna sustatze aldera.

10.4. Laguntza onartzearekin, onuradunak baimena ematen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari legez dagozkion edo programaren kofinantzazioagatik aplikatu dakizkiokeen datu baseetan sartzeko diru laguntzari buruzko informazioa.

*11. oinarria. Bateragarritasuna eta bateragarritasun-eza beste diru laguntzekin.*

11.1. Diru laguntza hauek bateragarriak izango dira xede berarekin jaso daitezkeen beste edozein diru laguntza, sarrera edo baliabiderekin; eta, diru laguntzaren portzentajea aplikatuko da beste entitate batzuek diruz lagundutakoa gainditzen duten proiektuaren zenbatekoaren gainean, baldin eta ez badute jardueraren kostua gainditzen.

11.2. Oinarri hauen arabera diruz lagundutako proiektua garatzeko diru laguntza bat eskatzen edo lortzen duen entitate onuradunak horren berri eman beharko dio departamentuari.

*12. oinarria. Diru laguntzen ordainketa.*

Diru laguntza osorik ordainduko da kontratatu behar diren zerbitzuak gauzatu direla egiaztatutakoan.

*13. oinarria. Diru laguntza zuritzea.*

13.1. Enpresa onuradunak diruz lagundutako jarduera gauzatu izana frogatu beharko du, baita jarduera horrek sortutako gastuak ere. Diruz lagundutako proiektua ez bada egiten edo zati batean bakarrik egiten bada, eta departamentuari ez bazaio hori zuritzeko jakinarazpenik egiten, zigor prozedura bat hasi ahal izango da.

13.2. Zuriketa-agiriak aurkeztutakoan, espedientearen instruktoreak beharrezko diren egiaztapenak egingo ditu. Egiaztapen horietatik ondorioztatzen bada diruz lagundutakoaren kostua jasotako diru laguntza baino txikiagoa izan dela edo, osorik nahiz zati batean, ez direla bete diru laguntza justifikatzeko ezarritako baldintzak edo diru laguntzaren xede ziren helburuak, horren berri emango zaio interesdunari, egiaztapenaren emaitzekin batera, eta, aldi berean, hasiera emango zaio diru laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emateko prozedurari, edota diru laguntza osorik nahiz zati batean itzultzeko prozedurari (15. oinarrian aurreikusten da).

9.3. La entidad beneficiaria dispondrá de un plazo de 10 días, a partir de la fecha de la notificación, para su aceptación, que se entenderá tácitamente aceptada si no existe comunicación expresa en contrario. Cualquier renuncia posterior, sin justificación temprana y clara será considerada como incumplimiento y podrá ser objeto de sanción.

*Base 10.ª Obligaciones y compromisos de las entidades beneficiarias.*

10.1. La aceptación de las subvenciones por parte de las entidades beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en las presentes bases, en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, su Reglamento de desarrollo (aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril) y demás normativa aplicable en materia de subvenciones.

10.2. A fin de asegurar la mejor adaptación del programa a las necesidades y características del colectivo, las entidades beneficiarias tendrán la obligación de colaborar en la evaluación del mismo mediante la cumplimentación del cuestionario que se pudiera desarrollar por parte del Servicio de Promoción de Nuevas Tecnologías de la Información y Comunicación.

10.3. La aceptación de la ayuda implicará la obligación por parte de la entidad beneficiaria de facilitar al departamento, información relativa al proyecto y la autorización para su uso con fines de comunicación, todo ello con el objeto de impulsar la transparencia en la utilización de los recursos públicos.

10.4. La aceptación de la ayuda implicará la autorización a la Diputación Foral de Gipuzkoa para la inclusión de la información relativa a la subvención en las Bases de Datos que legalmente correspondan o que pudieran ser de aplicación por la posible cofinanciación del programa.

*Base 11.ª Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones.*

11.1. Las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con cualquier otra subvención, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad; y, el porcentaje de subvención se aplicará sobre el importe que exceda del ya subvencionado por otras entidades, sin que en su conjunto se pueda superar el coste real.

11.2. La entidad beneficiaria que obtuviera y/o solicitara una subvención para el desarrollo del proyecto subvencionado al amparo de estas bases deberá comunicarlo de modo fehaciente al departamento.

*Base 12.ª Pago de las subvenciones.*

La subvención se abonará en su totalidad a la verificación de la ejecución de los servicios a contratar.

*Base 13.ª Justificación de la subvención.*

13.1. La entidad beneficiaria deberá justificar la realización de la actividad subvencionada, así como, en su caso, los gastos generados por dicha actividad. La no ejecución o ejecución parcial del proyecto subvencionado, sin comunicación justificativa al departamento, podrá dar lugar al inicio de un procedimiento sancionador.

13.2. Una vez presentada la documentación justificativa, se realizará por el órgano instructor del expediente la correspondiente comprobación. Si como resultado de dicha comprobación se dedujera que el coste subvencionable ha sido inferior a la subvención concedida, se reajustará la misma. En el caso de incumplimiento total o parcial de los requisitos establecidos para la justificación de la subvención o los fines para los que fue concedida la misma, se comunicará tal circunstancia a la persona interesada junto a los resultados de la comprobación realizada y se iniciará el procedimiento para declarar la pérdida del derecho de cobro de la ayuda o, en su caso, el procedimiento de reintegro total o parcial previsto en la base 15.ª

EK\CV GAO-I-2018-03384

